

*Udaberriarekin ...
itxaropena dator*



Udal Informazio Aldizkaria

2021ko Maiatza
(49. zenbakia)




Aurreko buletinaren eta oraingoaren artean pandemia-urte bat baino gehiago igaro da. Argitalpen honen bidez, Ezkabarte haraneko bizilagunekin harremanetan jartzen garaberriz, hain desiragarria den normaltasun berriaren aurrerapen bat balitz bezala. Atzean geratu diren hilabeteetan, ia ezin izan diogu ikusgarritasunik eman udaleko langile guztien lan nekaezinari. Lana egiten jarraitu dugu, langile guztien inplikazio, jarrera eta jardunbide egoikiari esker. Oso garai zaila izan da eta erabaki zailak hartu behar izan ditugu, ziurgabetasunez eta segurtasunik gabe. Hala eta guztiz ere, aurrera egitea lortu dugu, kolektibo guztien babesarekin. Udalak aipamen berezia eta eskerrak eman nahi dizkie gure haranean lan egiten duten profesional sanitarioei eta farmazia, saltoki, ostalaritza, garbiketa-zerbitzu, boluntarioria eta bestelako taldeetan lan egiten duten pertsonei. Eta nola ez, bizilagun guztiei.

INBERTSIOAK ETA EKONOMIA 2021eko aurrekontua


GASTUAK-KAPITULUAK

1-Langile-gastuak	444.000,00
2-Ondasunen eta zerbitzuen gastuak	451.600,00
3-Finantza-gastuak	4.750,00
4-Transferentzia arruntak	306.150,00
6-Inbertsio errealak	96.500,00
7-Kapital-transferentziak	15.000,00
9-Finantza-pasiboak	72.500,00
	1.390.500,00



SARRERAK- KAPITULUAUAK

1-Zuzeneko zergak	785.800,00
2-Zeharkako zergak	80.000,00
3-Tasak, preziopublikoak etabestelako diru-sarrerak	124.200,00
4-Transferentzia arruntak	379.300,00
5-Ondare-sarrerak eta aprobetxamendua	1.200,00
7-Kapital-transferentziak	20.000,00
	1.390.500,00



2020an, gastuari eutsi egin zaio, eta horren ondorioz, Udalak ordaindu behar izan dituen aparteko gastuekin(kiroldegiko lurren desjabetzea eta Eusa hornitzeko obra) eragindako ordainketa atzerapenak-batez ere Mankomunitatearekin eta Atarrabiako Udalarekin-zuzendu egin dira, gure finantza-egoeraren normaltasunera itzuliz.

2021ean, gastuari eusteko dinamika berean jarraitzen dugu, gure ekonomia hobetzeko eta inbertsio-aukera berriei aurre egin ahal izateko. Etorkizunean, finantza-egoera onbideraturik dugunean, inbertsio-aukera berriak (agian TAP berri bat) agertuko zaizkigu eta horieiaurre egin ahal izango diegu.

UDALAK KONTZEJUEI EGINDAKO TRANSFERENTZIAK

Pandemia dela eta, 2020a plan asko zapuztu zaizkigun urtea izan da, eta gauza asko ospatzeari utzi behar izan diogu, besteak beste, gure herrietako jaiak. Antza, 2021 urteak ildo beretik jarraitzen du, eta litekeena da jaiak beste urte batez bertan behera utzi behar izatea. Egoera ikusita, eta kontzejuei jaialdietarako partida ordaintzea ezinezkoa zenez, Ezkabarteko Udalak 2020rako aurrekontu-aldaketa bat onartu zuen, kontzejuei guztira 26.000€ transferitzeko. 2021 honetan, herrietako jaietarako eta haraneko jaietarako aurrekontu-partidaz gain (jaiak ospatu daitezkeen ala ez kontuan hartu gabe), Udalak 15.000 euroko partida berri bat sortu du kontzejuei transferentziak egiteko, zenbateko interesgarria bat dena, herri bakoitzean administratu ahal izateko, bere irizpide, lehenetasun eta premiaren arabera.

Ezkabarte Haraneko ur-hornidura

2020ko otsailaren 4an Soraurengo edateko uren ponpaketa-estazioa inauguratu zen. Olaibar eta Ezkabarteko depositu berriak elikatzen ditu eta Olabe, Enderitz eta Eusa udalerriei zerbitzua ematen die. Ordura arte, iturburuak Eusako herria hornitzen zuen eta ez zituen baldintza egokiak betetzen uraren kalitateari eta kantitateari dagokienez, batez ere uda garaian. Eusan eraikitako ur-biltegia aurrerapauso handia da gure haranarentzat, Artetako iturburutik eta Eugiko urtegitik datozen urak batera hornitzeko aukera ematen baitu eta hori, abantaila handia da, behar izanez gero hornidura batera edo bestera jo baidezakegu.

Obra horren kostua milioi erdi euro ingurukoa izan da Ezkabarterentzat, eta Nafarroako Gobernuak %50eko dirulaguntza eman du Tokiko Azpiegituren Planaren (TAP) barruan.

Bigarren fasean, Ezkaba herria hornitzeko moduan gaude, ez baitzuen hornidurarik, eta, hirugarren fasean, Garrues herria hornitzeko moduan. Garruesen egungo hornidura egiten da kalitate eta kantitate gabeziak dituen iturburu baten bidez. Azotz herriak ere onurak izango ditu, ur-emaria eta ur-horniduraren presioa nabarmen hobetuko baitiralaster.

Obra gauzatzeko aurrekontua Ezkabarteko Udalaren kontura da eta ia 40.000 eurokoa da, BEZa barne. Proiektuaren prozeduraz, kontratazioaz eta ondorengo gauzatzeaz Iruñerriako Mankomunitatea arduratu da, IZEA sozietatearen bidez. Lanak dagoeneko hasi dira eta Ezkabako herri-lur batean eraikitako biltegi berriak hornikuntza zerbitzua emango die laster Ezkaba eta Azotz herrietako bizilagunei.

CAMPUS INFANTIL

NATURALEZA
DEPORTE
Y DIVERSIÓN

Junio, Julio y Agosto

948330315

CAMPING
EZCABA
Enclave Natural
www.campingezcaba.com

13/2020 Foru Legearen inbertsioak

13/2020 Foru Legearen bidez, udalak 71.968 euro jaso ditu tokiko ekonomia sustatzen duten inbertsioak egiteko. 13/2020 FORU LEGEA, uztailaren 1ekoa, 25 milioi euroko aparteko kreditu bat eman, arautu eta banatzeko arburuzkoa da, Nafarroako Toki Ogasunen parte-hartzearen funtsaren kargura, COVID-19ak eragindako osasun publikoko arazoak direla-eta hartu behar izan diren ohiz kanpoko neurri urgenteengatik toki entitateek dituzten beharrei erantzuteko. Kreditua handitu egin behar da, baliabide propioen %15eko ekarpenarekin.

Diru-zenbatekoaz erabilgarritasun zitekeen kontuan hartuta, Ezkabarteko Udalak honako inbertsio hauek egitea erabaki du:

- Orikain inguruko industrialdeko argiteria publikoa berritzea. Irago Electricidad enpresak egindako obren ondorioz, farola-buru guztiak argi efizientearekin birjarri dira. Aldaketa hori atsegingarria da ingurumenarekin, gaueko ikuspena hobetzen du, segurtasuna bermatzen du, bonbillak barne dena da efizientea, eta puntu aipagarrienetako bat da faktura nabarmen murrizten duela.
- Kiroldegiko ur bero sanitarioko (EUB) biltegi bat ordezte.
- Eguzki plakak jartzea udaletxean eta kiroldegian.

EGUZKI-PLAKA FOTOVOLTAIKOAK

Ezkabarteko Udalak mundu garbia,



ekologikoa eta jasangarri baten aldeko apustua egin du. %100 segurua, kaltegabea eta isila den teknologia baten alde. Gure ustez, plaka fotovoltaikoak instalatzea eta horiek sustatzea gure planetari laguntzeko modu bat da; beraz, zergatik ez saiatu?

Bere garaian, bizilagunak gonbidatuak izan ziren eguzki-energiari buruzko topaketa batera, haren onura ekologikoak eta ekonomikoak ezagutzeko. Horren ondorioz, Ezkabarteko Udala panel fotovoltaikoak instalatzera animatu da, bai Azotzeko Udal Kiroldegiko estalkian, bai Orikaingo Udaletxean. Xedea ingurumen-onurak bilatzea da, eta jakina, etorkizun ez oso urrun batean, onura ekonomikoak baita ere.

Haraneko hainbat etxebizitzetan eta hainbat enpresek eguzki-plakak jarri dituzte dagoeneko, eta badakigu beste pertsona asko ari direla ekimena hausnartzen. Irtenbide baten parte izan bagaitezke, saia gaitezten. Horregatik, Ezkabarteko Udalak osoko bilkuran onartu du IEOZri buruzko (Instalazio, Eraikuntza eta Obren gaineko Zerga) ordenantza fiskala aldatzea, herritarrei erraztasunak emateko eta gure udalerriaren energia berriztagarriak instalatzeko.

ORIKAINGO KALEAK KONPONTZEA

Azken urte honetan, Ezkabarteko Udalak egindako lanen artean, Orikaingo Donejakue Bidearen zatiaren zoladura aipatu behar dugu. Bide horrek lotzen du herrigunea Irungo errepidearekin, N-121 errepide zaharra. 2017-19rako Tokiko Inbertsioen Planean sartutako obren helburua zen bidea zolatzeta eta euri-urak biltzeko sarea hobetzea eta aldatzea. Alboetako landaredia kentzean, egiaztatu zen bidearen neurria uste baino pixka bat handiagoa zela zenbait puntutan, eta, beraz, zabalerari dagokionez, irabazi egin da, bai ibilgailuak bai oinezkoak igarotzeko; are gehiago, tartehori, herritik irteteko erabili ohi den bideadela kontuan hartuta. Udalak 94.297,24 €-ko zenbatekoa bideratu du obra horretarako, eta Nafarroako Gobernuak 22.548,83 €-ko ekarpena egin du.

Konponketa-lanak zirela eta, Orikaingo Kontzejua bide berean indarra, telekomu-



nikazioak eta argiteria kanalizatzeko proiektu zuten, hornidurak lurperatuz.

Bestalde, Ezkabarteko Udalak Orikaingo Itxuru kalea zolatzeko obrak egin zituen 2020an. Konponketa-lanak zati batean finantzatu ziren Zehaztapan Libreko Toki Inbertsioen Planarekin. Hori, Nafarroako Gobernuak 10.000 biztanletik beherako udalei despopulazioaren aurkako jarduerak finantzatzeko emandako laguntza da. Jaso genuen zenbatekoa 17.064,40 eurokoa izan zen.

Taxia eskariaren arabera

Joan den ekainean, Ezkabarteko Udalak San Fermin Autotaxirekin hitzarmen bat sinatu zuen, "Taxia eskariaren arabera" zerbitzua eskaintzeko. Horri esker, eskualdeko hiri-garraioa iris-ten ez den haraneko herrietara garraio zerbitzu hau hurbilduko da. Bidaiaren kostua 1,50 €-koa izango da (bidaia eta pertsona bakoitzeko). Benetako kostuaren gaineko aldeaz Ezkabarteko Udala arduratzen da.

Zerbitzu hori, haranean erroldatutako pertsona guztiek erabili ahal izango dute, 14 urtetik gorakoak badira eta heldu batekin dauden adingabeak badira; zerbitzu hau erabiltzetik kanpo geratzen dira Arre eta Orikaingo erroldatutako pertsonak. Ezkabarte Haraneko Udala kexu da "Taxia eskariz" zerbitzua ez delako ezarriko herri horietan, Orikaingo bereziki; bertako herrigunea autobus-geltokitik nahiko urrun baitago. Aferaren aurrean, Nafarroako Gobernuak argudiatu du herri horietan "Taxia eskariaren arabera" zerbitzua ezartzeak eskumen-gatazka bat sortuko lukeela hiri-garraioaren emakidadunekin.

Zildotz herriko bizilagunek ere "Taxia eskariz" zerbitzua erabili ahal izango dute Markalaingo mediku kontsultara joateko, hala eskatzen dutenean.

Hau beste urrats bat gehiago da gure herrietan bizitzea oztopo izan ez dadin.

121-A errepide nazionala, 2+1 bihurketa.

2021eko otsailaren 8an, N-121-A errepidea 2+1 errepide mota bihurtzeko lanak hasi ziren. Lanaren lehen zatia gauzatuko da Ezkabako tuneletatik Olaberaino. Egokitzapen-obrako zati horren aurrekontua 8,1 milioi eurokoa da, Estatuko Aurrekontuek finantzatuta. Obra honen xedea errepideko segurtasuna eta funtzionaltasuna da. Behobiaraino iristen den errepidea da, 10.000 ibilgailu igarotzen dira egunero, eta horietatik ia 3.000 astunak dira. Gure erkidegoko puntu beltzetako bat da, istripu eta ezbehar-kopuru handiagatik.

Aurreikuspenen arabera, lehenengo zatiko obrek 8 hilabete inguru iraungo dute. Ezkabarteko Udala oso pozik dago hobekuntza-lanak amaitzean lortuko den emaitzarekin. Bilera asko egin dira eta lan handia egin da Nafarroako Gobernuko teknikariei ikusarazteko eta haiek kontzientziatzeko, gure haranari dagokion tartea askoz gehiago behar zuela haiek proposatzen zutena baino. Azkeneko proiektua erabakitzeko garaian zerikusi handia izan du herritarren parte-hartzeak, bereziki gure bizilagunek Ezkabarteko Udalari helarazitako

alegazioek (biziki eskertzen ditugu). Udalak bere alegazioak aurkeztu eta azaldu zituen, eta, bizilagunek emandakoekin batera, azkenik, Nafarroako Gobernuko Herri Lanen Zuzendaritza Nagusiak proiektua ontzat eman zuen. Horrekekarri du urteetan aldarrikatutako beharra betetzea. Haranean bizi diren pertsonen erosotasuna, segurtasuna eta lasaitasuna irabaziko dituzte. Orikain herrirako sarbide berri bat eraikiko da. Azkenik ere errealtate bihurtuko da Na-4210 errepideak zeharkatzen dituen herrietara iristeko biribilgunea. Soraren beste bi biribilgune eraikiko dira, zirkulazioa eta herrira sartzeko/irtetekobideak errazteko, eta hori behar-beharrezkoa da.

N-121-A errepideak bere ibilbide osoan izango dituen hobekuntzak gorabehera, haraneko herritarrok pairatzen jarraituko ditugu ibilgailu astunek Frantziaraino egiten duten bidea, horrek dakarren arriskuarekin. Horregatik, Ezkabarte Haraneko Udalak ekimen ezberdinak babestuko ditu aurrerantzean ere, gauzak alda daitezen eta beste aukera batzuk kontuan har daitezen, horrela, modu lasaiagoan zirkulatu eta bizi ahal izateko.

ASKOTARIKO EGINKIZUNETARAKO LANGILE BERRIA



Elurra kentzeko ziri berri baten erosketa

Haran osorako elurra kentzeko makina bat soilik edukitzeak berekin ekar dezake elurte bat gertatzen denean makina non erabili lehenetsi behar izatea, eta horrek zerbitzu ona ez emateko arriskua dakar. Elurra kentzeko lanak are gehiago zaildu daitezke baliabide bakanak azalduz bat badu, aurreko neguan gertatu zitzaigun bezala. Eskerrak eman nahi dizkiegu gorabehera hura gertatu zenean elurra kentzeko lanetan modu batera edo bestera lagundu zuten pertsona guztiei. Bereziki, Makirriaingo bizilagunak aipatu nahi ditugu, egoera ikusita, herriko kaleak garbitzeko mahukak jaso zituztenak (inoiz baino hobeto esanda), baita elurra kentzeko ibilgailuko gidaria Garruesetik irteteen istripua izan zuenean eskuzabalki lagundu zuten pertsonei ere.

Horregatik eta zerbitzua hobetzeko, Ezkabarteko Udalak elurra kentzeko ziri berri bat erosi berri du, lana eraginkortasun handiagoz egin ahal izateko. Zerbitzua hobetzeko Udala 4x4 ibilgailu bat erosteko lanean ari da, elurra kentzeko ziria eta gatza zabaltzeko gailua erantsita dituen. Aldi berean, elurra kentzeko hirugarren ibilgailu bat kontratatzea negoziatzen ari gara.

2019ko amaieran udal langile batek erretiroa hartu ondoren, lanpostu horren hutsunea betetzea beharrezkoa izan zen Udaleko Zerbitzu Anitzen lana osatzeko. 2020ko irailaren 1ean argitaratu zen NAOn Ezkabarteko Udaleko Zerbitzu Anitzetako enplegatu-plaza bat oposizio-lehiaketa bidez aldi baterako betetzeko eta izangaien poltsa bat eratzea sor daitezkeen beharrei erantzuteko deialdia. Urriaren 26an, laurogeita bost pertsona aurkeztu ziren Ezkabarteko kiroldegira lehen proba teorikoa egitera, babes- eta segurtasun-neurri guztiak betez. Hurrengo egunetan, beste bi proba praktikoko egin ziren, eta horiek kontutan harturik puntuazio-ordena erabaki zen, eta, beraz, hutsik geratzen zen lanpostua beteko zuen pertsona. Lehen bi postuak bailarako bi herritarrek eskuratu zituzten, gu pozez betez. Lehen postua Eusako bizilagun batek lortu zuen eta uko egin zion, une honetan beste toki-erakunde batentzat ari delako lanean, lanpostu mota bera eta kontratu mota bera betetzen. Hortaz, zerrendetan jarraitzea eskatu zuen, puntuazioa mantenduz. Lanpostua Arreko bizilagun batek onartu zuen, bigarren postuan geratu zena. 2021eko urtarrilean langile berria batu zen Udal Lantaldean. Deialdian aritu zirenen lana, profesionaltasuna, interesa eta gogo nabarmendu nahi ditugu, batez ere probak gainditu zutenen artean, bukaerainoheldu ziren azken zortzi pertsonak.

Nola zaindu dezaket ingurugiroa?

Argi eta garbi adierazi dugu Ezkabarteko Udalak ingurumenaren alde egiten duela, planeta osasuntsuago eta garbiago baten alde, bizirik irauten saiatzen den mundu baten alde, eta eredu izan nahi dugula. Datozen belaunaldiei erakutsi nahi diegu gure partetik jarrita dena posible gerta daitekeela. Beraz, zabaldu eta erabili behar dugu “Errespetua” hitzaren esanahia, “Kontsiderazioa”, “Begirunea”, “Gurearekiko”, “Gure ingurune naturalarekiko”, “Guztiekiko”. Tristura handia da gure mendietan ibiltzea naturaz gozatu nahian eta aire garbia arnas-teko eta horren orde, topo egitea zaborrez, hondakinez ala arratsalde edo gau handi baten (horrek berdin dio) osteko zaramaz betetako parajeekin. Aisialdiaren gozamenaren ondorioz, gure haraneko berdegune asko zikin daude, kutsatuta. Hezi gaitezen eta izan eredu.

Kontzientzia hartuz hasten da Garrantzitsua da **gure ingurunearen egoeraren benetako pertzepzioa** sortzea. Horretaz jabetu ez ezik, erreakzionatu ere egin behar da.

Utzi dena aurkitu duzun bezala edo hobeto

Mendia, ibaiak eta berdeguneak garbi mantendu behar dira. Gozatu gune horiekin eta joaten zarenean jaso sortutako zabor gutzia. Horrela, kut-



sadura eta balizko suteak saihestuko dituzu.

Berrerabili eta ez hondakinik sortu. Bildu eta Birziklatu

Berrerabiliz gero, zabor gutxiago sortzen dugu eta baliabide gutxiago gas-tatzen ditugu. Gure herrietan ditugun birziklatzeko edukiontzia eta garbiguneak erabiliz lagundu dezakezu. Irmo saiatu, gaur ahalegin txiki bat dena bihar ohitura izango da.

Ikasi zure baliabideak murrizten

Eskuak garbitzen ditugunean uraren giltza ixtea edo hutsik dagoen edozein gelatako argia itzaltzea ura eta argia alferrik ez galtzeko moduak dira.

Saihestu plastikozko gauzak erabiltzea

Badakigu oso zaila dela, baina plastikoa kontsumo eta erabilera murrizten saiatu, hondar-kutsadura gehiago besterik ez du sortzen.

Garrantzitsua: mezua zabaldu

“Natura ulertzen ikasi behar dugu eta ez egin haren aurka”

ULTZAMA MAITIA / QUERIDO UITZAMA

Diru-laguntza eskatu genion Nafarroako Gobernuaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentuari Tokierakundeentzat, Hirigintza Jasangarriaren arloko Ekintza Berritzaileetarako. Ultzama ibaia leheneratzeko proiektuan erabiltzeko 11.430€ eman zitzaizkigun. Agresta Soz. Koop. da lanak kudeatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen den enpresa. Lanak premien azterketa batekin hasi ziren, eta gero, jarduketa sorta bat proposatu zuten Arre eta Sorauaren artean ibaiaren hidraulika, ingurumena eta erabilera publikoa hobetzeko. Prozesu parte-hartzailean egindako eta jasotako lana baloratu ondoren, non, nola eta zein unetan jardun erabakiko da, gure “Ultzama maiteak” bizitza ematen jarrai dezan.



BAR RESTAURANTE
Camping Ezcaba
**¡ESTAMOS
ABIERTOS!**
TE ESPERAMOS
@restaurantec_ezcaba
948 22 48 09

EZAGUTU EZKABARTEKO GAURKOTASUN ETA INFORMAZIO GUZTIA

Gure haranaren inguruan etabertako gaurkotasunari, azken orduko albisteei, abisuei, jardueri eta kulturari buruzko informazio guztia jakin nahi baduzu, honako hauen bidez egin dezakezu:

- **Udalaren WhatsApp taldea (deitu sar zaitzagun)**
- **www.bandomovil.com/ezcabarte**
- **www.facebook.com/Ezkabarte-Infoma**
- **www.ezcabarte.es**

WhatsApp komunikabidea da Ezkabarteko Udalak bizilagunekin komunikatzeko gehien erabiltzen dugun bitartekoa, oso eroso, azkarra eta eraginkorra baita edozein komunikazio mota transmititzeko orduan.

WhatsApp taldean sar zaitzagun nahi baduzu (informazio-bide bat baino ez da, abisuak, albisteak, gertaeren argitalpenak eta abar jasokodituzu... Ez dago horren bidez erantzuteko aukerarik), jar zaitez Udalarekin harremanetan eta eman zure mugikorraren zenbakia. Gainerako aplikazioekin arazoren bat baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, mesedez.

“Eguneratu zaitze eta ez esan ez zenekienik”

HAURRENTZAKO NARRATIBA ETA MARRAZKI LEHIAKETA

Udalak helduentzako zein nagusientzako antolatzen dituen jarduera eta tailerren artean, aurten eta berrikuntza gisa haurrentzako eta gazteentzako narrazio eta marrazki lehiaketa bat antolatu du, 3 urte eta 18 urte bitartekoentzat. Sormen lanak gaztelaniaz zein euskaraz aurkez zitekeen. Lehiaketa honen helburua haurrak eta gazteak gozatzeraz bultzatzea izan da, eta, beraien denbora asmatzen igarotzea, gaitasunak garatzea eta inspirazioa askatzea. Gaia ezin zen bestelako bat izan: **“COVID ETA GURE HARANA PANDEMIAREN OSTEAN”**.

Agradecer enormemente a todos y todas las participantes, en especial a los premiados y animarles a que continúen imaginando y participando.

NARRATIBA 3urtetik 12 urte arte (GAZTELANIA) LEHEN SARIA

Izenburua: “Kutxatutako etxe bat”

Izengoitia: Arrano-begia

Idazlea: Vera Arraiza Gurrea

BIGARREN SARIA

Izenburua: “Nire leihotik”

Izengoitia: Hidroalkoholikoa

Idazlea: Iosune Casado Platero

HIRUGARREN SARIA

Izenburua: Eguraldi txarrari poz handia

Izengoitia: Koronabirus

Idazlea: Alazne Casado Platero

NARRATIBA 13urtetik 18 urte arte (GAZTELANIA) LEHEN SARIA

Izenburua: “Gure Harana pandemiaren ostean”

Izengoitia: Casperote

Idazlea: Sergio QuesadaGarcía

MARRAZKI 3urtetik 12 urte arte LEHEN SARIA

Marrazkilaria: Vera Arraiza Gurrea

Izengoitia: Arrano-begia

BIGARREN SARIA

Marrazkilaria: Ilektra Luis TsimilliVale


Izengoitia: Katxalote

HIRUGARREN SARIA

Marrazkilaria: Endika Platero

Izengoitia: Mix1

LEHEN SARIA
ADIOS CORONAVIRUS
Vera Arraiza Gurrea
Arrano-begia



AZKEN 5 GARAJE-PLAZEN SALMENTA

Ezkabarteko Udalak 5 garaje-plaza salgai ditu Arreko Sakanetakalean, 20-22 zenbakietan, 315 €/ m2 aurrera.

Interesik baduzu jarri harremanetan udalarekin, ez utzi berandutu arte.

GENERO-INDARKERIARI EZ

Genero-indarkeria ez da arazo pribatua, giza eskubideen urraketa baizik eta gizarte osoaren arazoa da. Zoritzarrez, egiaztatu da indarkeria mota hau are eragin handiagoa duela bizi dugun Alarma Estatuan. Kolpe fisikoak ikusgarriak dira, kolpe psikologikoak ez, eta horiek hainbestekoak edo mingarriagoak izan daitezke. Indarra duzu, jaso eta zuga sinestu, ez utzi ezerk eta inork zu hondoratzten. Zeu zara zeure buruaren gainean agindu dezakeen bakarra.

Eskatu laguntza, EZ zaude bakarrik, ZUREKIN GAUDE.



JAIOTZAK

SOFIA PALACIOS FRANCES (SORAUREN)
ENARA SOLA ASIAIN (ARRE)
AIMAR IDOATE UGARTE (EUSA)
KYARA PAVESIO REBOREDO (ARRE)
NAYELI ALACHE OROZCO (ARRE)
MAIALEN GARBISU ZUDAIRE (ARRE)
MATEO GONZALEZ LARA (MAKIRRIAIN)
MAITANE FRANCISCO SANCHEZ (ARRE)
OIHAN ZAMORA HUALDE (ARRE)
LIDIA CABEZA TELLERIA (ARRE)
ARAY GONZALEZ MARCAIDA (ARRE)
OIER MARIN DIAZ (SORAUREN)
ISRAEL MENDOZA IZQUIERDO (ARRE)
SIRIA MARTINEZ LECUMBERRI (ARRE)
MEYLE BREVIE LEON (ARRE)

HERIOTZAK

ELENA ZABALZA MARCHUETA (ARRE)
ANGELA LANASPA SANTAMARIA (ARRE)
MARIA SEGURA ALFARO (ARRE)
BASILIO IZQUIERDO TORVISCO (ARRE)
JULIA ARROYO GIRÓN (ARRE)
MAURILIA VALCARCEL HERNANDO (ARRE)
CONSOLACIÓN SANZ ELIZAGARAY (ARRE)

TELEFONO INTERESGARRIAK

Ezkabarteko Udala (Orikain)	948 330 341
Kexak eta iradokizunak	948 012 012
Genero indarkeriaren aurka	016

Bidez Osasun Etxeak (Arre)	948 332 335
Ezkabarte kiroldegia (Azotz)	948 330 341
Publizitatea Aldizkarian	610 628 967